

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

ERAKUSKETAK

Meatzariak gerran

Karlismoaren Museoa

2017/11/30 - 2018/04/15

Gaztela eta Leóngo Siderurgia eta Meatzaritza Museoaren ekoizpena da, eta egokitu eta eduki berriak gehitu dira espazio honetan muntatzeko. Doanekoa da, 2018ko apirilaren 15era arte.

Erakusketak Karlismaldien eta Espainiako Gerra Zibilaren arteko aldi erabilitako meatze-teknikak eta trintxerak egitekoak erakusten ditu, Lehen Mundu Gerrarenak nabarmenduta.

Materia betiko

Nafarroako Museoa (4.1 aretoa)

2017/11/18 - 2018/02/18

<http://culturana Navarra.es/eu/agenda/2017-11-27/erakusketak/materia-betiko>

Nafarroako Museoa mikroerakusketa berri bat jarri du ikusgai: "Materia betiko", Alfredo Díaz de Cerio-rena. Margolari, eskultore eta poeta nafarraren lan-multzo txikia erakusten du, urtarrilean hamar urte beteko baitira hil zenetik.

Mikroerakusketak egilearen lan plastikora zein poetikora hurbildu nahi du ikuslea, haren azken lanetako batzuen eskutik.

Ni, denetan okerrena

Oteiza Museoa, Nafarroako Museoa, Huarte Zentroa

2017/10/27 - 2018/02/04

24 artistaren lana erakutsiko dira, eta Maite Garbayo Maeztu izango da komisarioa. Nafarroako Museoaren, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren eta Huarte Arte Garaikideko Zentroaren elkarlanaz egindako proiektua da.

Artearen Historian doktore Maite Garbayo Maeztu ikerlari eta idazleak gauzatutako komisariotza- eta arte-proiektu hau teoria kritiko feministatik abiatzen da, emakumeak bazterrean utzi dituen ezagutza produzitzeko eta transmititzeko modu hegemonikoak zalantzan jartzeko.

Navarrorum

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2017/09/21 - 2017/12/31

<http://culturana Navarra.es/eu/agenda/2017-11-27/erakusketak/navarrorum>

Bisita gidatuak: Larunbatetan, igandeetan: 11.00etan (euskaraz) 12.00etan (gaztelaniaz) NAVARRORUM ez da euskararen historiari buruzko erakusketa bat.

Baina, zernahi gisaz, aurre egiten dio erronka jakin bati: idazki batzuen bidez euskararen aztarna dokumentala agertzea, kontuan izanda ia mila eta bostehun urtean ahozko mintzoa izan zela. Ahozko hizkuntza, idazten ez zena. Erakusketarako, hiru dozena dokumentu hautatu ditugu. Euskarazko agiriez gain, euskarari buruzko agiriak ere badaude tartean. Den-denek badute bereizgarri bat, nafartasuna: Nafarroari buruzkoak, Nafarroan idatziak edo nafarrek eginak dira. Gehienak gure artxibo, museo eta liburutegietatik hartu ditugu, baina badaude Afrikako, Ameriketako eta Europako beste dokumentu zentroetakoak ere.

Gloria Fuertes poetaren mendeurrenari buruzko erakusketa

Nafarroako Liburutegia. Erakusketa-aretoa

2017/11/07 - 2018/01/05

mendeurrenaren-erakusketa

Zikloa: Gloria Fuertes

Sarrera: librea

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etik 20:30era.

Larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

Erakunde laguntzailea: Madrilgo Fernán Gómez Kultur Zentroa

Mendeurrenaren erakusketa handia ikusgai egongo da azaroaren 7tik 2018ko urtarrilaren 5era. Gloria Fuertes Fundazioak eta Fernando Fernán Gómez Zentroak antolatu zuten duela ehun urte jaio zen poeta madrildarraren omenez. Madrilen eta Bilbon ikusgai egon eta gero, Iruñean (Nafarroako Liburutegian) ere bisitatu ahalko da. Izan ere, hemen amaituko da Gloria Fuertes inguruko ospakizunez betetako urtea.

TAILERRAK

Eguberrietako lantegia Bitartean-en eskutik

Nafarroako Museoa

Asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala / 10.00etan

hurrengo saioak

2017ko abenduaren 26tik 29ra eta 2018ko urtarrilaren 2tik 5era.

5 eta 12 urte bitarteko haurrentzako.

Proiektuaren zenbait proposamen artistikotatik abiatuta, gogoetarako, sorkuntzarako eta gozamenerako tartea eskainiko du.

Prezioa: 10 euro. Leku mugatuak. Aurrez izena ematea beharrezkoa da Nafarroako Museoko harrera-lekuan azaroaren 18tik aurrera.

Eguberrietako lantegi pedagogikoak

Oteiza museoa (Altzuza)

Asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala / 10.00etan

Erakusketak hartzen dituen proiektu artistikoen inguruan lan egingo dute Eguberrietako lantegi pedagogikoetako partaideek, identitate eta esperientzia desberdinetatik abiatuta kontakizun bat egiteko modu berriak proposatuz. 2017ko abenduaren 26, 27, 28 eta 29an. 10:00etatik 13:00ak arte.

6 eta 11 urte bitartekoentzat. Prezioa: 20 €, lau jardunaldietarako. Aurrez izena eman behar da didactica@museoteiza.org helbidean.

Jardunaldiak. Ikerketa tresnak arteen barruan eta kanpoan

Huarte Zentroa

Asteazkena / 16.00etan

Con Lander Calvelhe, Isabel de Naverán.

Uharte Zentroa arte-ekoizpen zentro gisa birmoldatzeko proiektuaren baitan, ikerketan jarri nahi dugu arreta, sorkuntza-prozesuen funtsezko ardatza baita, dela lan materialena, dela ezagutza, dela pertsonen arteko harremanena.

Uharte Zentroan lan-ildo horri ekin nahi diogu eta, horretarako, lan-jardunaldiak proposatu ditugu, ikerketa artistikoa eta arteetan oinarrituriko ikerketa zalantzan jartzeko, birplanteatzeko edo birkokatzeko, haien arteko antzekotasunak eta

ezberdintasunak ulertuta, baina baita haien arteko osagarritasuna ere. Horrela, lehena metodologiarik egokienak bilatzera dago bideratua praxi artistikotik garatu beharreko proiektu bakoitzarentzat; bigarrenak, aldiz, beste arlo batzuetara estrapolatzen ditu metodologia horiek, edota, hobe esan, berariazko metodologiak sortzeko ideia estrapolatzen du, eta gainera, baliatzen ditu berez erreferentzia-balio handia duten elementu artistikoak ikerketa bat egiteko.

Tea en la azotea

Karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

Ostirala /11.00etan

Karlismoaren Museoan, hauta ezazu gehien gustatzen zaizun dekorazioa. Tea en la azoteak lagunduko dizu zure kuxina pintatzen eta betetzen, eta gero zure etxera eramaten ahalko duzu.

Lantegiak Karlismoaren Museoan izanen dira (Estella-Lizarra), abenduaren 29an eta urtarrilaren 4an, 11:00etatik 13:00etara.

Adin egokia: 5 urtetik 14ra bitarte.

Dohainik.

Bertan emanen da behar den material guztia.

Gehienez ere 15 lagun hartuko dira.

Gomendatzen da plazak telefonoz erreserbatzeko, zenbaki honetara deituz: 948 55 21 11 (asteartetik ostiralera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00)

ZINEMA

Errudun faltsua

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Errudun faltsua (Falso culpable) filmak egile honen ohiko ezaugarri asko biltzen ditu: akats bat dela-eta salatzen duten errugabe baten istorio bat, bat-batean nahasmen konplexu batean sartzen den protagonista bat eta arazo mentalak dituzten pertsonaiak, besteak beste. Hala ere, Hitchcock-ek hitzaurrean esaten duenez, obra honek badu ere hain ohikoa ez den elementu bat: lehen aldiz bere ibilbide osoan egiazkoa den gertaera bat hartzen du oinarri. Are gehiago, benetan gertatu zenaren detaile guztiak kontatzen saiatzen da pelikula honetan.

Gueto. Nazi propagandaren pelikula galdua

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20.00etan

Bigarren Mundu Gerra eta gero, Alemania Ekialdeko artxibo batean Ghetto bezala etiketatuta dagoen 60 minutu inguruko pelikula misteriotsu bat agertu zen. Naziek 1942. urtean Varsovian grabatu zuten eta historialariek geto judutarretan izandako bizipenak deskribatzeko erabili zuten zinta.

The Seasons in Quincy

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Film luze honek lau zati ditu: atal bakoitzak John Berger idazle eta pentsalari britaniarraren zinemaren erretratu bat egiten du. Berger 2017ko urtarrilean hil zen.

Dokumental honek Quincy-ko urte sasoiaren erritmoan kokatzen du Berger, eta filmaren zati bakoitzak bere bizitza eta obraren ikuspegi ezberdin bati heltzen dio